

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Itsuak izango dira gure bezeroak, baina produktua ez da adin zehatz batera bideratuta egongo, baizik eta adin ezberdinetako jendeari zuzenduta egongo dira. Baliagarria izango litzateke ikusmen urria duten pertsonentzat, eta baita pertsona helduak eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat ere, zehazki gauzak bereizteko zailtasuna, mugikortasun urria eta lepoa biratzeko ezintasuna dutenentzat.

Gazteek eta helduek ez dituzte interes eta ohitura berak, eta denek ez dituzte gustu komunak. Hori dela eta, ikusita produktu bakar batek ez dituela kontsumitzaile guztien beharrak asetzen, merkaturia segmentatzea erabaki dugu. Hau da, bezero bakoitzaren gustuetara eta beharretara egokituko ditugu gure zapatilak, horretarako, bezeroaren hanka formara egingo ditugu. Hori egiteko, bezeroak guregana jotzean, neurriak hartu eta, horren arabera, zer nolako zapatila mota beharko dituen ikusiko dugu. Hori dela eta, lokalean eredu ezberdinak edukiko ditugu, gustu anitzak asetzeko. Gazteenentzat kolore biziko zapatilak izango ditugu aukeran, eta horrez gain eskuragarri ere izango dira kolore ilunekoak.

Hori kontuan izanda, hainbat tamainatako zapatilak egin beharko ditugu, zehazki 29 tailatik hasi eta 46 bitartera, horrela, zapatila hauen beharra duten edozein adinetako pertsonak erabili ditzakete, eta gaur egun Euskal Herriko gizartearen 172.857 biztanleri lagundu ahal izango diegu.